

Tresnak / Olioak / Ohialak jasotzea

Tamaina handiko gausak jasotzea

Bilketa Urazca enpresak egingo du, eta hori astelehenetik ostiralera egunero egingo da (jaiegunetan izan ezik). Tamaina handiko gauzak bide publikoan utzi behar dira (kale kantoietan, lehentasunez).

Olioak jasotzea

Etxeko erabilerarako den olio begetala bakarrik utzi (autorako olioak, etab. Garbigunera eraman behar dira.

Kolore laranja duten edukinontzi barruan utzi, flasko batean sartuta, botila batean edo etxean izan dezakegun beste edozein ontzian.

Garrantzitsua da ontzia **plastikozkoa izatea** (edukinontzi barruan jaustean apurtu ez dadin), eta **ongi itxita egotea** (olioa isuri ez dadin).

Kokapena: Ehunak jasotzeko 12 edukinontzien ondoan jarri dira)

Ehuna jasotzea

Bilketa Rezikleta enpresak egingo du. Edukinontziak astelehen eta ostegunetan husten dira. Ehuna poltsa itxietan utzi behar da.

- **1 Agirre Lehendakaria, Autobus geralekua (Ariz)**

○ Helbidea: Agirre Lehendakari kalea - Arizko Dorrea plaza

- **2 Kultur etxea Ibaigane**

○ Helbidea: K/ Ibaigane, 2

- **3 Solobarria plaza**

○ Helbidea: Kale Nagusia - Goikosoloa kalea

- **4 Pozokoetxe parkea**

○ Helbidea: Nafarroa kalean, parke ondoan

- **5 Agirre Lehendakaria /Kareaga goikoa**

○ Helbidea: Kareaga Goikoa, 79

- **6 Kareagako jubilatzen egonlekua**

○ Helbidea: K/ Particular de Asturias, 11 (atzealdea)

- **7 Urbi kalea**
- **8 Fauste plaza**

○ Dirección: Pedro Lopez Cortazar Plaza aurrean (BBK haurtzaindegia)

- **9 Hernan Cortes plaza**

Tresnak / Olioak / Ohialak jasotzea

- Helbidea: K/ Lapurdi, 1
 - **10 San Migeleko Pinceles parkea**

- Helbidea: Kebrantebarri
 - **11 Basozelaiko gizarte etxea**

- Helbidea: K/ Basozelai, 11
 - **12 Kataluña kalea**

- Helbidea: K/ Kataluña, 22
-

Beste hondakinak

Non eta nola utzi hondakin bakoitza:

Ontziak:

Edukiontzi horian. Latak, plastikozko ontziak eta tetrabrikak.

Beira:

Iglu berdean. Beirazko botilak eta flaskoak, tapoirik gabe. INOZ EZ, edalontziak, kopak, ispiluak, zeramikak edo portzelanak, bonbillak edo fluoreszenteak.

Papera:

Estalki urdina duen edukiontzian. Papera eta kartoia tolestua utzi.

Komertzioak: atez ateko bilketa egiten da astearteetan 9:00etatik 13:00etara. Komertzioaren ondoan utzi astelehen gauean edo astearte goizean.

Ehungintza:

Arropa, zapatak, zapiak,... poltsak itxi, eta metalezko edukiontzi berde ilunetan sartu behar dira.

Pilak:

Arruntak edo botoi erakoak. Komertzioetan eta eskoletan jarritako edukiontzi urdinetan utzi daitezke.

Bide publikoan jarrita dauden publizitateko hainbat paneletan ere utzi daitezke, batzuk edukiontzia baitute barruan.

Etxeko gainerako hondakinak:

Utzi zabor-poltsak, itxita, estalki grisa duten edukiontzi barruan.

Gure hiria ondo zaindua egon dadin, zure zarama 18.00 etatik aurrera utzi dezazula gomendatzen dizugu.